

APELAZIO-EPAIA BETEARAZTEA. DEIALDIA EGIN ZEN, ZUZENBIDEKO LIZENTZIADUNAREN 2 PLAZA SARTZEKO PROZEDURAREN BIDEZ ETA MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN SALBUESPENEZKO SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO EZOHICO PROZESUAREN BARRUAN. DEIALDI HORREN MEREZIMENDUEN BAREMOARI DAGOKIONEZ, NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAK UZTAILAREN 24KO 220/2025 ZENBAKIDUN APELAZIO-EPAIA EMAN ZUEN.

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartu zuen 2025eko abenduaren 10ean:

«IKUSI da 220/2025 zenbakidun apelazio-epaia, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko uztailaren 24an emana. Horren bidez, jarritako apelazio-errekurtsoa hein batean baietsi eta apelatutako auzialdiko epaia –169/2024 zenbakiduna, irailaren 4koa, Nafarroako Administrazioarekiko auzien 1. Epaitegiak emana– hein batean errebokatzen da; ondorioz, zuzenbideko lizentziadunaren plazak merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdian bakarrik deuseztatzen da merezimendu profesionalen baremoko a) 3 apartatua: *“deialdiaren xede den lanpostu berean beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak (1 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko)”*. Horrenbestez, ikusirik hala 2025eko urriaren 26ko txosten juridikoa nola 2025eko urriaren 30ean Negoziazio Mahaian lortutako akordioa, eta bat etorritik espedientean jasota dagoen txosten teknikoan adierazitako motibazio teknikoarekin, ERABAKITZEN DA:

LEHENA.- Adieraztea Tokiko Gobernu Batzarrak izan duela Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko uztailaren 24an emandako 220/2025 zenbakidun apelazio-epaiaren berri. Epai hori betearazteko, eta zuzenbideko lizentziadunaren 2 plaza, gehienez ere, sartzeko prozeduraren bidez eta merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdiko –aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuaren barruan– merezimendu profesionalen baremoaren a) 3) apartatua –*“deialdiaren xede den lanpostu berean beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak (1 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko)”*– deuseztatu denez, baremoa ezen jasota baitzegoen Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko azaroaren 14an (20/SG) eta 25ean (23/SG) hartutako erabakietan, eta aintzat hartuta aldez aurretik Negoziazio Mahaian akordioa lortu dela, onestea, aipatu deialdiaren merezimendu-baremoaz bezainbatean, a) 3 apartatua honela idatzita geratuko dela: *“Beste administrazio publiko batzuetan, lanpostu berean egindako zerbitzuak: 2 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.”*

BIGARRENA.- Erabaki hau argitaratzea orain aldatu den baremoa argitaratu zen bide berberetan, hau da, udal-webgunean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Erabaki hori berriz ere aurkaratu daiteke, baldin eta jotzen bada baremo berria ez dela zuzenbidearen araberakoa, aipatu deialdiari dagokionez soilik (zuzenbideko lizentziadunaren 2 plaza, gehienez ere, sartzeko prozeduraren bidez eta merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko sistemaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuaren barruan).

HIRUGARRENA. - Erabaki hau dagozkion epaitegiei helaraztea, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko uztailaren 24an emandako 220/2025 zenbakidun apelazio-epaiaren betearazpena jakinarazteko.»

Erabaki honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2025eko abenduaren 10ean.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.